

HELBURUAK BETETZEA: AURREKONTU-EGONKORTASUNA ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNA (2021)

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoak (AEFILO) arautzen ditu administrazio publikoen alderdi horiek, eta azken xedapenetatik hirugarrenean ezarri du Euskal Autonomia Erkidegoari aplikatuko zaiola, hargatik eragotzi gabe Ekonomia Itunaren Legeak ezarritakoa. Beste alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak 48. artikuluko 3. apartatuan aurreikusi du Estatuarekiko koordinazioa eta lankidetzaren aurrekontu-egonkortasunaren alorrean. Lege beraren 62. artikulua ezarri duenez, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren funtzioen artean dago koordinazio- eta lankidetzaren konpromisoak hitzartzea aurrekontu-egonkortasunaren alorrean.

Ministroen Kontseiluak, 2020ko urriaren 6ko Erabakiaren bidez, kentzea onartu zuen 2020. eta 2021. urteetarako zerga-arauak. Ezabatze horren arrazoia honako hau da: mundu mailako pandemiaren ondorioz, Europako Batzordeak 2020an Egonkortasun eta Hazkunde Ituna babestea erabaki du, 2021ean ere luzatuko dena. Neurri horri esker, estatu kideek, krisiaren aurretik onartutako zerga-baterakuntzaren bidea etenda utz dezakete; beraz, irailaren 30ean adostutako helburuak, krisiaren eraginez, erabat zaharkituta geratu dira eta bertan behera geratu dira.

Aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren alorreko helburuen jarraipen-mailari buruzko txostena Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak 2021eko azaroan egin zuen eta Administrazio publikoek defizitari eta zor publikoari buruz lortutako emaitzak adieraztera mugatzen da, baina, beraz, zerga-arauak betetzen diren edo ez balioetsi gabe.

Eskualde-BPGd-aren %

<u>AURREKONTU-EGONKORTASUNA</u>	
Aurrekontu-egonkortasunaren helburua	-% 2,2
Superabita	% 0.9
<u>FINANTZA IRAUNKORTASUNA</u>	
Zor publikoaren alorreko helburua	% 17.3
Zor publikoa	% 15.6